

Liburu-igogailua

Aireak altxa al dezake objektu astunik?

Materialak

- Plastikozko erosketa-poltsa bat
- Liburu bat



Zer egin

1. Jarri erosketa-poltsa mahai gainean.
2. Jarri liburua poltsaren gainean.
3. Poltsaren irekiguneak mahaitik kanpo egon behar du. Liburuak ez luke atera behar mahaitik.
4. Altxatu pixka bat poltsa, eta egin putz indarrez irekigunetik. Zer gertatu zaio liburuari?

Zer gertatzen da?

Poltsan putz egindakoan, liburua altxatu egin da mahaitik. Poltsari gehitu dizkiozun aire-molekulek elkarri bultza egitean, poltsa putzu egin da, eta liburua altxatu du. Ponpa baten bidez gurpilak putzen dituzun bezala putzu duzu poltsa airez. Airearen presioa oso indartsua da, eta presio handiak kamioi astunak ere altxa ditzake!

